



2025

EKAINA

JUNIO

5 - 8



## PASAIKO DANTZA FESTIBALAREN EGITARAUA OSATZEKO PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA ZABALIK

PASAIKO DANTZA FESTIBALAREN 7. edizioa 2024ko ekainaren 5tik 8ra izango da. Hori dela eta, bertan parte hartu nahi duten Euskal Herriko sortzaile eta dantza konpainiei deialdia egiten diegu, data hauetan eskaintzeko prest izango dituzten lanen berri eman diezaguten.

Proposamen bilketa hau baliagarri izango zaigu, euskal konpainien egungo egoera eta beraien dantza sorkuntza ezberdinak ezagutzeko eta honela, jaialdiaren egitaraua osatzeko.

PASAIKO DANTZA FESTIBALAK jaialdi parte-hartzaile, parekide eta integratzailea izateko asmoarekin dihardu lanean. Dantza gizarteratzeko eta ikusle berriak erakartzeko, dantza sortzaileen lanak erakusteaz gain, bide ezberdinen bidez dantza herritarrei hurbiltzeko tailer, erakusketa eta hitzaldiek osatuko dute egitaraua.

### PARTE-HARTZAILEAK

Euskal Herriko zazpi probintzietako sortzaile nahiz konpainiek bidalitako proposamenak onartuko dira. Iraupen motz zein ertaineko piezak izan beharko dira, kalean zein ezohiko espazioetan eskaintzeko sortu direnak.

### PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Proposamena aurkezteko, [jaialdiaren webgunean](#) dagoen [inprimakia](#) bete behar da.

### EPEA

Proposamenak aurkezteko epea 2024ko azaroaren 29ra arte egongo da zabalik.

ANTOLATZAILEA:



**haatik.**  
DANTZA